AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

KULTURA SAILA

6235

EBAZPENA, 2011ko azaroaren 28koa, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariarena, oinarrietan ezarritakoa bete duten izangai hautatuen zerrenda argitaratzen duena, Etxepare Euskal Institutuan lan egiteko lan-kontratuak formalizatu ditzaten.

2011ko urtarrilaren 13ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen 2010eko abenduaren 20ko Ebazpenaren bitartez, Etxepare Euskal Institutuaren zuzendariak, institutu horretan lan-kontratuko langile gisa jardungo duten zortzi langilerentzako lanpostuak betetzeko hautaketa-prozesuen deialdia egin zuen.

2011ko urriaren 21eko Ebazpenaren bitartez, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariak, institutu horretan lan-kontratuko langile gisa jardungo duten zortzi langilerentzako lanpostuak betetzeko hautaketa-prozesuen deialdietarako gainditu duten hautatutakoen behin betiko zerrenda argitaratu eta egutegiko hogei (20) eguneko epea eman zuen, 2010eko abenduaren 20ko Ebazpenak, I. eranskineko 9. paragrafoak eskatzen dituen dokumentuak aurkezteko.

Hartarako, Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen II. tituluko IV. kapituluaren 30. eta 31. artikuluetan langileak hautatzeko ezarritakoarekin bat etorriz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko lan-kontratuko langileen hitzarmen kolektiboa kontuan harturik, eta aipaturiko legeko 6.1.i) artikuluan aitorturiko eskumenak erabilita, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.– 2010eko abenduaren 20ko Ebazpeneko I. eranskineko 9. paragrafoak ezarritakoa bete duten izangai hautatuen zerrenda argitaratzea (I eranskina).

Bigarren artikulua.– Hamabost (15) eguneko epea ematea, hautatutako izangaiek Etxepare Euskal Institutuarekin dagokien lan-kontratua sinatu dezaten, Institutuaren egoitzan bertan, Prim kalea 7 - 20006 - Donostia-San Sebastián.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Ebazpen honek amaitu egiten du administrazio-bidea. Haren aurka berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal diote interesdunek Etxepare Euskal Institutuko zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Salan, bi hilabeteko epean, ebazpena EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Bigarrena.– Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Donostia-San Sebastián, 2011ko azaroaren 28a.

Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria,
MARÍA AITZPEA GOENAGA MENDIOLA.

1. ERANSKINA

HAUTATUEN ZERRENDA

Idazkari Teknikoa

Arrieta Urdangarin, Elena

Komunikazio, prentsa eta interneteko presentziaren arduraduna

Larraza Aizpurua, Irene

Euskara eta kultura sustatzeko eta hedatzeko teknikaria

Erdozia Ibáñez, Olatz
Epelde Bereziartua, Joseba
Irazu Ibáñez, Alberto

Kudeaketa-administraria

Solla Sampedro, Deborah